

**68AREN OSTEAN.  
DESPUÉS DEL 68.  
AFTER'68.  
1968-2018**

## Denboraren artea

Erakusketa dela-eta antolatutako  
bideo-zikloa.

Komisarioa: Guadalupe Echevarría  
Dokumentazioa eta laguntza: Íñigo Gómez Eguíluz  
Kordinazio teknikoa: Ramón Ganuza  
Esker onak: Miren Jaio, Josu Rekalde

SORMEN-BIDEOA jaialdien bidez iritsi zen Euskal Herrira. Kronologikoki, lehendabizikoa Donostiako Zinemaldiaren barruan antolatutako Bideo Jaialdia izan zen (1982-1984), eta haren ondoren egin ziren Vitoria-Gasteizko Bideo Musikaleko Jaialdia (1985), zeinak beste arlo batzuetan jarraipena izan zuen zenbait ekitalditan, Tolosako *Bideoaldia*, oso jaialdi herrikoa (1986-1990), eta Getxoko Bideo Jaialdia (1988). Jaialdi horien inguruan sortutako jarduera ugarien artean, nabarmentzekoa da Donostiako laginaren zati handi bat Euskal Telebistak ematen zuela, Hasier Etxeberria *Fahrenheit* saio kulturalaren arduradun zenean.

Horrek guztiak hasiberria zen ekoizpenaren goraldia ekarri zuen, hala Euskal Herrikoarena nola Espainiakoarena. Bitarteko teknologikoak urriak ziren, eta inspirazioa nahasia, halako moldez non obrek nazioarteko bideogintzaren tankera izan zezaketen edo teknologia berrietan bermatuak izan, are alor instituzionala edo industrialara hartu ere. Orientazio kritikoa zuten obra batzuk ere izan ziren *Trantsizioaren* amaiera aldean (Gabriel Villota, Arturo Fito Rodríguez, Marcelo Expósito, *Erreakzioa-Reacción*, Estíbaliz Sádaba eta Azucena Vieitesekin...). Adibide horiek aintzat hartzen dituzte arte elektronikoetako aitzindari batzuk, hala nola 1972ko *Iruñeko Topaketak* edo José Ramón Sainz Morquillasek Bilboko Aurrezki Kutxan antolatutako ikastaroa, *Video-Nou* talde katalanak emana 1979an. Hirurogeiko hamarkadaren amaieraz geroztik, Nam June Paik, Wolf Vostell, Bruce Nauman eta gisako beste artista batzuk arte berri baten oinarriak ezartzen ari ziren, eta 1972. urtea data enblematikoa izan zen Europako eta Amerikako arte bisualetan.

Bitarteko horretan aurretik ere esperientziak izan arren, adierazgarria da *Gure Artea* sarietan bideoak ez izatea lehiaketarako onartuak 1996ra arte. Eta gune adierazgarri batek, *Artelekuk*, une jakin batzuetan baino ez eskaintzea espazioak eta bitartekoak bideogintzari, 1987an sortu zenez geroztik. Consonni izan zen, 1997tik aurrera, Sergio Prego, Jon Mikel Euba eta gisako beste artista batzuei bideoak ekoitzi zizkiena, belaunaldi berria Bilboko Arte Ederren Museo honetan *Gaur Hemen Orain* erakusketarekin (2001) indartsu agertu zen unean.

*68aren ostean. Artea eta praktika artistikoak Euskal Herrian 1968-2018* erakusketari lotutako ziklo honetan gehien arduratzen gaituztenak milurteko berriaren hasieraz geroztiko artisten belaunaldiak dira. Gehienak Euskal Herriko Arte Ederren Fakultatetik sortuak dira, haien aurrekoak bezala; maiz bidaiatzen dute, eta, hori baino adierazgarriagoa dena, beste herrialde batzuetan ekoizten dute, eta, gainera, euren eskura dauden bitartekoak erabiltzen dituzte eta euren artean partekatzen. Haien kezka ez da bideoa bitarteko gisa; hori aurreko belaunaldiaren ezaugarria da: zinea edo telebista erreferentzetat hartzen dute, euren hautamenaren arabera erabiltzeko. Horren ondorio dira lanen iraupenak eta denboraren, gaiaren, kameraren eta muntaketaren erabilera batzuk. Bideoaren gaur egungo beste alderdi garrantzitsu bat da hala Donostian nola Bilbon dauden espazio instituzional edo independente batzuen erabilera euskarri gisa, horietako batzuk oso bitarteko mugatuekin: Tabakalera, Bulegoa z/b, BilbaoArte, consonni... Ziklo hau Zinebik Bilboko Arte Ederren Museoaren laguntzarekin bultzatua izatea ez da huskeria; hain zuzen ere, adierazgarria da zinemara bideratutako programa bat artearekin elkartzeko, hori guztia historikoki sustraituta. Horren berri ematen dute ziklo honetan aurkezten ditugun hamasei bideoek.

Guadalupe Echevarría

# Hastapenak

---

26 02 19 16 04 19 19:00

## José Luis Iglesias Fernández-Berridi

(Donostia, 1961-Madril, 1988)

### **Lo ofrecido III**, 1984

10'21"

Ez hasierarik ez amaierarik txertatu ez zaion sekuentzia-egitura bat da obra hau, hau da, zatitu gabekoa. Behetik zerurantz hartutako zenbait irudik jarraitzen diote batak besteari, eta testura lineal eta garbia osatzen dute, norabide bakarrekoa, zeinean begiak indarra galtzen duen. Ez dago musikarik, ez dago soinurik, ez dago elkarrizketarik. Paisaia, *travelling* faltsuan. Ez dago zerumugarik. (Guadalupe Echevarría)

## Iñigo Salaberria

(Donostia, 1961)

### **Quai de Javel**, 1984

10'35"

Senaren kai bat, Parisen, inguruari begiratzeko espazio bihurtzen da, handik patxadaz erreparatzeko inguratzen gaituenari. Ibaiko urak mugimenduan dagoen irudi bihurtuko du, emozioz bete eta islatzen duenarekiko urruna, gure ikusmenean fisikoa eta estatikoa den guztia. Quai de Javel-ek fisikoa denaren esanahia alde batera uzteko aukera ematen duten bideak erakusten ditu. *Quai de Javel* Henri Cartier-Bressonek dokumentatu zuen 1932an.

## Josu Zabala

(Otxandio, Bizkaia, 1949)

### **Mata a tu viejo**, 1985

4'02"

Obra hau, Vitoria-Gasteizko Bideo Musikaleko I. Jaialdian agertutako lehen bideoklipetako bat (Kortatu, La Polla Records, Eskorbuto eta Euskal Rock Radikaleko beste talde batzuenekin batera), sailkatzen zaila den OHEa (Objektu Hegalari Ezezaguna) da, Hertzainaken oinarri musikala ska britainiarrarekin ahaidetzen baldin bada ere, eta haren forma, beldurrezko zinemarekin. Josu Zabalak, Hertzainak taldeko liderrak, Erromualdo Ballestosari eta Indio Joshe Mariri uzten die bere izena, objektu zikin eta apaindurarik gabea lortuz, izendaeginaren mugetan, dantzagarria aldi berean. Hori guztia, Arabako hiriaren asto-sabel itxurako zeru patxadatsua azpian.

**Juan Crego**

(Salamanca, 1962)

**La familia del artista no le comprende, 1986**

3'07"

Gizabanakoak ekoizpen artistikoari ekiteko duen premiak eta horren ondorioz familiak lanbide horrekiko duen aurkakotasunak errealitate gogorra eratzeko ahalmena dute. Bideo batez ebatzitako borroka bat; bideo horretan, frustrazioak ezaguna denarekiko haustura bat eragiten du, familiak inoiz ikusiko ez dituen adierazpen bide berriak esploratuz, bide horiek nagusi den arau bisualetik kanpo baitaude.

**Isabel Herguera**

(Donostia, 1961)

**Spain Loves You, 1988**

5'52"

Familia giroko ipuin honen itxura xaloak Espainiaren historiako hamar urteren berriakurketa berezia gordetzen du, egilearen bi nebaren jaiotzatik Francisco Franco diktadorearen heriotzara arte, 1975ean.

**Marcelo Expósito**

(Puertollano, Ciudad Real, 1966)

**Los demonios familiares, 1990**

18'52"

Lan laburren (amaitu gabeko) sail baten izenburua da *Los demonios familiares*; sail horrek laurogeita hamarreko hamarkadaren lehen erdian egindako hiru bideo batzen ditu. Izenburu orokorraren oinarrian Manuel Vázquez Montalbánen liburua dago (*Los demonios familiares de Franco*, zeinari zeharkako omenaldia egiten zaion); liburuaren egileak diktadorearen idazkietan eta hitzaldietan espainiarrak mehatxatzen zituzten ustezko mamu gisa nabarmendutako gai errepikakorrei (anarkia, indibidualismoa, kritika negatiboa, estremismoa, separatismoa, masoneria, komunismoa...) eman zien arreta.

# Bi milatik gorakoak

---

27|02|19 17|04|19 19:00

## Erreakzioa/Reacción:

Estíbaliz Sádaba (Bilbao, 1963) eta Azucena Vieites (Hernani, Gipuzkoa, 1967)

**La lucha por la liberación del cuerpo de las mujeres**, 2007

10'13"

Emakumeen arteko desberdintasunek beraiek, generoak, sexualitateak, arrazak edo klase sozialak gorputzean txertatuta, gogoeta egiteko gonbita egiten dute horien adierazpenaz eta desberdintasuna desparekotasun eta ilegaltasun bihurtzen denean herritartasuna hitzak duen esanahiaz. Bideo honetan, Erreakzioa-Reacciónek artearen historian emakumeen gorputzera hurreratzea proposatzen du ikuspegi feminista batetik

Marion Cruza (Bilbao, 1982) eta Nadia Barkate (Bilbao, 1980)

**Red River/Río Tinto**, 2009

19'17"

"*Red River/Río Tinto* ez da *making-of* bat, pelikula baten filmaketari buruzko pelikula, hasierako une batean gelditutako pelikula baizik, hasierako kredituak agertu baino lehen, eta egitura egin, erabaki eta sortzeko prozesuaz mintzo da. Far-West-eko film bat egiteko nahiaren proiektzioa ere bada." (Miren Jaio, *CMK 02, Programación del Centro Cultural Montehermoso Kulturunea*-n, Vitoria-Gasteiz, 2010)

Usue Arrieta (Mondragón, Gipuzkoa, 1979) eta Vicente Vázquez (Tarragona, 1976)

**R5**, 2011

6'12"

"Zaloberri goitibehera Gernika-Lumoko errepidean aurkezterakoan, 2010ean, egin genituen grabazioek osatzen dute *R5*. Beste lan batzuetan bezala, gure enkoadraketek San Pedro elizaren aurrean, Lumo gainean, lasterketaren aurreko uneetan zain dagoen taldearen gorputz-jestualtasuna aztertzen dute. Parte-hartzaileen bizkarrek korroak marrazten dituzte osorik ikusi ezin dugun objektu baten inguruan. Beste behin, ez ditugu ikusten lasterketaren beraren irudiak, aurreko tarte bat baizik." (Usue Arrieta eta Vicente Vázquez, 2018)

**Pablo Marte**

(Cádiz, 1975)

**Dialéctica de la Felicidad a comienzos del siglo XXI, 2010-2012**

23'47"

"Ez ditut oso asmo argiak izaten proiektu bati ekiten diodanean. *Dialéctica de la Felicidad* hasi nuenean ere ez. Gatazka-gune bihurtu beharreko lurralde baten intuizioa bai, hori egon ohi da, eta, kasu honetan, ondoezaren eta krisiaren arteko erlazioa izan zen. Bi hitz aski dira harreman joko bat hasteko, eta hori hasieran euren artean inork inor ezagutzen ez duen bilera batean bezala kokatzen diren hainbat materialetara (testuak, irudiak) sartzeko atea da. Orduan, materialaren azterketa intertestualeko lan batean sortzen da asmoa. Prozesu bidezko lan hau ez da garrantzitsua proiektuaren ibilbidea zehazteko soilik, proiektua bera da, ez irudiak eta ez testuak ez baitira modu irekian eskaintzen. Kontua ez da azaleratu behar den egia ezkutu bat eduki dezaten, ezpada materialaren irakurketak eta harremanetan jartzeak urruntzen dutela ideia soiletatik eta haiekin lanean has-teko aukera ematen duten elementu zehatz gisa berraktibatzen dutela." (Pablo Marte, 2018)

**Maidier López**

(Donostia, 1975)

**Polder Cup, 2011**

15'59"

*Polder Cup* polderretan jokaturako futbol txapelketa da. Zelaiek, urak tratatzeko moduan ezarrita, ohartarazten digute estrategia berriak asmatu behar direla, eta arauak moldatu, egoera berrira egokitzeko. Lekuaren beste erabilera bat, paisaiaren berregituraketa bat eskaintzen duten oztopoz betetako futbol zelaiak, guri jolaserako gonbita egiten, aldi berean, uraren interferentziek jolas hori zailtzen dutela.

# Bi milatik gorakoak

---

## Ainara Elgoibar

(Mungia, Bizkaia, 1975)

### **Rodar y rodear**, 2011-2012

9'52"

*Rodar y rodear* kanal bikoitzeko bideo proiektioa daukan instalazioa da, eta esploratzen du Bartzelonako Fab Lab-en jabetza den sei ardatzeko KUKA robot-beso batek nola ikusiko lukeen MYMSA motozikleta bat, hori ere Bartzelonan ekoitzia, frankis-moaren garaian eta robot-aurreko sentsibilitate batez. Filmaketak museoko pieza moduan berriztatutako motozikleta baten eta kamerari lana egiten duen robot-beso industrial baten arteko topaketarako balio izan zuen; robot-besoaren lana eskuz grabatu zen behin eta berriz, proiektu artistikoaren parte gisa.

## Ainize Sarasola

(Orio, Gipuzkoa, 1984)

### **The News**, 2014

18'32"

"*The News* izenburu bereko proiektu baten barruan egin nuen lehen film laburra da. Harekin, esperimentatzea interesatzen zitzaidan, ikus-entzunezkoen arloan beren baitan ixten ez ziren obrak sortu beharrik gabe. Elkarrekin interkonektatutako hainbat lan egitea neukan buruan. Niretzat, proiektu honen puntu nagusietako bat zen emakumeentzako rol komiko desberdinak sortzea. Uste dut komedian estereotiporako joera handia dagoela. Eta interesatzen zitzaidan beste puntua zen albistearen ideia ikertzea (Zer da albiste bat?)." (Ainize Sarasola, 2018)

## Jorge Núñez de la Visitación

(Santurtzi, Bizkaia, 1983)

### **Materia oscura**, 2014-2015

10'34"

Ramón Churruca, Daniel Llaría, Marion Cruza, Pau Figueres, Itziar Okariz, Loida A. Gómez, Itziar Markiegi, Manuel Ortega Lasaga, Ainhoa Alberdi eta Cristian Ortegarekin. "Ameriketako Estatu Batuetako bi soldaduk topaketa estralurtar arraroa izan zuten 50eko hamarkadaren erdialdean, baso batean, maniobrak egiten ari zirela. Esperientzia hori lekukotasun estralurtarrak biltzen dituen liburu batean jasota dago, zeina Ramón Churruca oparitu zidan." (Jorge Núñez de la Visitación, 2018)



**Daniel Llaría**

(Logroño, 1985)

**You are no better at swimming than you were at the beginning, 2016**  
5'15"

"Iniziazio-keinu gisa pentsatua New Yorkera iritsi nintzenean, *No nadas mejor de lo que nadabas al principio* bideoa *News from Home* (Chantal Akerman, 1977) filmaren egitura epistolarretik abiatzen da. Lan horretan erretratututako belaunaldien arteko arrakala identitatearen eta klase arteko mugikortasunaren kontuetan islatzen da hemen, bereziki langile fordista post-fordistarengandik bereizten duen tartean. Teknikoki, filmak stop-motionaren jarraitutasuna *time-lapse*aren jarraitutasunik ezaren mende ezartzen du, testua eta lokuzioa ber-adierazteko aukera ematen duen kontingentzia teknikoa sortuz." (Daniel Llaría, 2018)

**Lorea Alfaro**

(Estella, Navarra, 1982)

**Tú, re-post, 2017**

16'45"

Jorge Oteiza Fundazio Museoaren lankidetzaz ekoitzia. "Bi keinu: batetik, bideo hau ekoitzi, Jorge Oteiza Museoko tailer-etxean ikusia izateko, eta, bestetik, erakusketa aretoan kokatu Jorge Oteizak 1991n bere emazte Itziar Carreñorekin batera partekatzeko hilobirako egin zuen gurutzea. Bi norabide: bertikala eta horizontala. Horizontalak azkenean bertikala eteten duen modu berean, ukimenak bisualtasuna eteten du. Estatuak besarkatu, gorputz-larrua edo gorputz-gurutzea ibiltzea bezala. Zuk, zure begirada itzultzen duzu. Posatzen duen gorputzaren begia ekartzen duzu... Ukitzeko modu bat begiratzeko modu baten truke, amodiozko garraioaren estetika baterantz." (Maite Garbayo, 2017)

(\*) Espresuki adierazi ezean, sinopsiko testuak Hamacaren artxibotik hartuak dira.

**BILBOKO ARTE  
EDERREN MUSEOA  
MUSEO DE BELLAS  
ARTES DE BILBAO**

